




EAEko ekonomiaren termometroa 117,2an dago

EAEko ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Urrian, EAEko ekonomiaren termometroa 117,2 puntutan kokatu zen, oraindik hazkunde sendoko eremuan. Hala ere, azken hilabeteetan moteltzeko joera txiki bat antzeman da, kontsumo pribatuaren eta esportazioen bul-tzada txikiagoak eraginda. Aitzitik, inbertsioak irudi dinamikoa-goia erakutsi du.

Txikizkako merkataritza %0,9 hazi zen EAEn

Txikizkako merkataritza EAEn

Prezio iraunkorrak. 3. hiruhilekoko indizea



Iturria: Eustat.


Eustaten arabera, aurtengo hirugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritza %0,9 hazi zen urte arteko tasan. Elikadurak %0,3ko hazkunde-a izan zuen, eta gainerako produktuen salmentak, berriz, %1,9koa. Azkenik, automobilgintzarako erregaiak %1,9 jaitsi ziren 2021arekin alde-ratuta.



Euskadi berritzaile handien taldean dago

Europako panela EIS (2022)

Berrikuntzako adierazleak




Iturria: Eustat.

Berrikuntza adierazleen Europako panela (EIS 2022) herrialde bakoitzeko berrikuntza jardueren garapena neurtzen saiatzen da. **Euskadi berritzaile indartsuen taldean dago.** Eragiketa horretan, Europar Batasuneko batez bestekoaren eta Italia, Espainia eta Frantzia bezalako herrialdeen aurretik dago, baina Alemaniako eta Eskandinaviako herrialdeen balioetara iritsi gabe.

Enpresen sorrera murriztu egin da 2022. urtean

EAEn sortutako sozietateak

Urte bakoitzeko urtarriletik irailera bitartean



Iturria: INE.

2022ko lehen bederatzia hilabeteetan, EAEn 2.254 enpresa eratu ziren guztira, hau da, 2021eko aldi berean baino %6,2 gutxiago. Epe luzeagoko ikuspegi batean, haute-maten da aurtengo guztizkoa pandemia hasi aurreko urteetako baino pixka bat txikiagoa dela.